





EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. URTARRILA

Ots.	Mar.	Apir.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abuzt.	Iraila	Urria	Azar.	Aben.	Urtar.
95,8	94,3	93,5	95,1	99,3	103,0	102,7	103,1	103,8	107,6	104,2	109,3

Euskal ekonomiaren termometroa 109,3an kokatu zen urtarrilean, eta azken hileetan izandako joera positiboa luzatu du. Hazkundeak barne eskarian oinarrituta jarraitzen du, batez ere inbertsioaren ekarpen nabarmenarekin, nahiz eta kontsumo pribatuak eta publikoak hazkunde garrantzitsuak izan. Kanpo arloak bilakaera oso apala izan du, eta ez du ia jarduerarik bultzatu; beraz, industriak aurrerapen oso mugatua izan du. Aitzitik, eraikuntzak hazkunde handia izan du eta zerbitzuek hazkunde sendoari eutsi diote, ekonomia osoaren hedapen ibilbidea indartuz.



Oharra: EAEko ekonomiaren termometroaren egiteko hileko bakoitzaren lehen egunetan eskuragarri dagoen informazioa erabiltzen da.